

opusdei.org

Bikario laguntzaile

Bikario laguntzaile eta Bikario nagusiaren izendapenak

2015 Urt 2

Opus Deiko Prelatuak Mons. Fernando Ocariz Opus Dei Prelatutzako Bikario Laguntzaile izendatu du eta Mons. Mariano Fazio Bikario Nagusi.

Prelatutzako Estatutuetan aurrez ikusita dagoen aukeraren arabera, Mons. Javier Echevarriak, Opus Deiko Prelatuak, Mons. Fernando Ocariz (Parisen jaioa, 1944ko

urriaren 27an) Bikario laguntzaile izendatu du, Prelatutzaren gobernurako behar den botere betearazlea duela, Prelatuaren eskumen bereiziak barne, apezpiku ordena erabiltzea eskatzen dutenak izan ezik.

Izendapenaren dekretuan, abenduaren 9an datatua, Prelatuak adierazten du "Prelatutzaren lan apostolikoaren hedatzeak, eta eskualdeko barrutien eta pastoral arreta Opus Deiren esku dagoen zentro eta lanen gehiagotzeak, Prelatuari dagokion gobernu lanaren handitzea ekarri dutela". Horregatik –eransten du– "nire adina ere gogoan edukita, Bikario laguntzaile bat izendatzea egoki dela ikusten dut".

Prelatutzaren Bikario Nagusi bezala, Mons. Fernando Ocariz-en ordeztuz, Mons. Javier Echeverriak –Kontseilu Nagusiaren boto eztabaidatuaz– Mons. Mariano Fazio izendatu du,

orain arte Opus Deiko Bikario
Argentina, Paraguay eta Bolivian.
Mons. Fazio Buenos Aires-en jaio zen
1960ko apirilaren 25ean.

Izendapen hauek jakinaraztean,
Prelatuak Opus Deiko kideei eta
Prelatutzaren pastoral ekitaldietan
parte hartzen duten pertsona guztiei
otoitzak eskatu dizkie, Opus Deiren
lanari apostolutza bizitasun berri bat
emateko, Elizaren eta arima guztien
zerbitzuan

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/bikario-laguntzaile/](https://opusdei.org/eu-es/article/bikario-laguntzaile/) (2025
Api 20)